

Lapurreta xume izan eta ilunerantz korapilatzen doan istorioa ondu du Jon Arretxek

Touré detektibeaz «atseden hartuz» beste gizarte maila bat irudikatu du, kritika sozial gutxiago eta umore gehiagorekin


J. AGIRRE

DONOSTIA. Jon Arretxe idazlearen izena estuki lotua egon da Touré detektibearenari hamarkadatik gora, baita bide horretan ondutako lanen estiloari: nobela oso soziala, inplikazio handikoa, mundu marjinalari ahotsa emanez, protagonistak txiroekin –etxegabeek, immigranteak, prostitutak...– eta kritika sozial oso handia eginez. Harekiko «aldatzeko beharrak» bultzatu du orain abentura berri batera –tartean ere kaleratu zuen 'Arruti-
ren banda' (Erein, 2017) eleberria– eta emaitza 'Txerriak eta loreak' (Erein) eleberria izan da. «Nobela beltzetik atera gabe zerbait ezberdina idatzi nahi nuen eta ia beste muturreraino joan naiz», aurreratu zuen.

Arbizuko hestebete-lantegi batean gauerdian gertatzen den txistor lapurreta misteriotsua da abiapuntua, eta hortik aurrera umore klabean idatzitako trama beltza dator, oso beltza, erritmo bizikoa, elkarriketa ugari-
koa, «tarantinoar» estetikakoa. Inazio Mujika Ereingo editoreak esan bezala, «lapurreta xumea da hasieran», baina poliki-poliki konplikatzen doa eta «ustekabeko bide ilunak» irekitzen doaz. «Lapurretak pertsonaia arraro eta arriskutsuen arteko kate kriminal aktibatzen du», tartean mafia txiki baino antolatuak. «Nobelak erakusten du zenbat jende mugitu daitekeen gertakari sinple baten atzetik eta elementu arras arrunt batek errealitate osoa iraul dezakeela. Dena intriga galdu gabe».

Biek ala biek esan bezala, «berritasun nagusia, pertsonaia interesgarriena» Zuriñe Ruiz de Gordo da, «Down sindrome duen emakumea, judoka ohia eta txapeldun paralinpikoa, indartsua, bereziki zorrotza, bere kabuz eta determinazio handiz» mugitzen dena, Mujikaren esanetan «Touréren maila hartzeko indarra eta etorkizuna duena». «Halako batean enkargua jaso eta bide konplexuetan sartzen da, istorioaren bihotzean», adierazi zuten.

Era berean, Touréren nobeletan ia ardatz nagusia zen kritika sozial gutxiago aurkituko du irakurleak. «Beti hiri handietako auzo baztertuetan zegoen



Jon Arretxe 'Txerriak eta loreak' eleberriaren aurkezpenean. ARIZMENDI

TXERRIAK ETA LOREAK JON ARRETXE

Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 168.
Prezioa: 21,00 euro.

jende zaurgarria eta marjinala zen protagonista, orain zortzi edo 16 abizen euskaldun izan ditzakeen jendea», alderatu zuen. «Zertzelada batzuk daude, baina irakurlea dibertitzekoa egin nahi nuen, harrapatzen duen eleberria izatea».

Ildo horretan, azala «nahiko esanguratsua» da Arretxerentzat. «Urkatzeko sokaren itxurakoa benetako txistorrekin egin», deskribatu zuen umorez. Alorrean dokumentatzea izan da pausoetako bat eta, bide horretan, Patxi Goikoetxea berezi-

«Elementu arras arrunt batek errealitate osoa iraul dezakeela erakusten du nobelak, zenbat jende 'zikindu' daitekeen»

ki lagungarria izan dela nabarmendu zuen, «ate guztiak irekiaz eta dena erakutsiz». Libururako noski, tentu handiz ibili da inork ez dezan identifikatu «pertsonaia mafioso» harekin.

Touré 2.0?

Aurkezpene eginda, egunotan Guadalajara (Mexiko) bisitatuko du eleberri beltzari buruzko topaketa batean izateko. Abenduaren 5etik 8ra, nola ez, Durango-ko Azokan izango da, zita oso kuttuna idazlearentzat. «Oso gustura joan ohi naiz, jada 30 urte». Irakurleen iritzia beti interesgarri, aukera baliatuko du 'Txerriak eta loreak' eleberriak duen harrera testatzen hasteko, nahiz eta benetako feedkack-a geroago jasoko duen uste duen, behin irakurleek irakurritakoan. Eta adi, irakurle, etorkizunari begira mugarri izan baitaiteke, batik bat Zuriñe Ruiz de Gordoaren berri gehiago izateko. «Badu potentziala, apur bat Tourék bezala. Harekin ikusi nahi zuen zelako harrera zeukan eta '19 kamera'-k arrakasta izan zuenez, iritzi positiboak entzun nituenez, jarraitu nuen. Honekin antzeko».